



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2008ko martxoaren 4a, asteartea.

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASIERA: 19:05

BUKAERA: 20:05

BERTARATUAK:

Alkatea

Jon Redondo Lertxundi

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Eugenio Cotado Iturain eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

Idazkari-kontu hartzailea

Jon Carrera Jauregi

GAI BAKARRA: BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 8. SEKTOREARI —MUNTO— DAGOKION EKIMEN PRIBATUKO PLAN PARTZIALA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen 8. sektoreari —Munto— dagokion ekimen pribatuko plan partziala 'INMOBILIARIA DE ORIO TXOKO TXIKI, SL' eta 'DESARROLLO Y EDIFICACIONES MENDIBIL, SL' entitate merkantilek sustatua da eta Luis Ulazia eta Luciano Pagaegi arkitektoek idatzi dute.



Orioko Udalbatzarrak, legezko gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin, honako erabakiak hartu zituen 2005eko abuztuaren 30ean egindako ohiko bilkuran:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen 8. sektoreari –Munto– dagokion ekimen pribatuko plan partzialari, honako baldintzarekin:

Hierarkia urbanistikoko oinarrizko printzipio bat aplikatuz, erabakiak indarra izan dezan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartu behar du Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioak berraztertu eta egokitzeko espedientea, 8. sektoreari –Munto– dagokiona.

2.- Espedientea JENDAURREAN JARTZEA hamabost laneguneko epean, interesatuek aukera izan dezaten aztertzeke eta, egoki bada, alegazioak aurkezteko udalbatzarraren aurrean.

Aipatutako espediente urbanistikoa jendaurrean jarri zen hamabost lanegunetz, EL DIARIO VASCO egunkarian 2006ko martxoaren 16an eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (55. zenbakian) 2006ko martxoaren 21ean argitaratutako iragarkien bidez; beraz, alegazioak aurkezteko epea 2006/03/22an hasi zen eta 2006/04/07an bukatu zen.

Alegazioak aurkezteko epearen barruan alegazio bakarra aurkeztu zen, Cristina Salsamendi Aiestaranek izenpetua, Orioko Merkataria, Ostalari eta Profesionalen Arkupe Elkartearen izenean; alegazioa izenpetu zuten, baita ere, beste 9 lagunek eta Orioko komertzioetan plan partzialaren kontra eta taberna eta komertzio txikien alde bildutako 1.400 sinadura ingururekin lagunduta zetorren.

Aurkeztutako alegazio bakar horrek honakoa eskatzen dio Orioko Udalari, hitzez hitz: *que dicte resolución en la que acuerde denegar la aprobación provisional del Plan Parcial del Sector 8 MUNTO de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Orio, dé por concluida su tramitación y deje sin efecto el mismo.* Hori eskatzeko, alegazio idatzian hitzez hitz jasotako honako ondorioetan oinarritzen da:

- No es procedente la aprobación del Plan Parcial de Munto, por infracciones graves de la legislación de Costas en lo concerniente a la servidumbre de protección de la ribera de la ría de Orio.

- La no existencia de previsión de la ordenación de Munto en el Plan Parcial Territorial de Urola Costa ni en el Plan Territorial Sectorial de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas y de Equipamientos Comerciales es una infracción grave contra estos.

- La superficie de techo prevista en Munto y Arocena, sobrepasa de forma importante la permitida por el Plan Territorial Sectorial de Creación Pública de



Suelo para Actividades Económicas y de Equipamientos Comerciales, por lo que infringe esta normativa.

- Obviando lo referido respecto a la conculcación de la legislación de Costas, el instrumento adecuado para la ordenación de un sector que incluye un gran establecimiento comercial, es el Plan Especial de Reforma Interior y no el Plan Parcial.

Uztaileko 22/1988 Legea, Itsasertzen Legea, betetzeari dagokionez, lege horren 25.2 artikulua honakoa ezartzen du: babes zortasuneko zonan honako obra, instalazio eta jarduerak besterik ez dira baimenduko, ohiko izaerarekin: beren ezaugarriengatik beste inon kokatu ezin daitezkeenak, itsas-lehortar domeinu publikoaren erabilerarako beharrezkoak diren edo egokiak diren zerbitzuak ematen dituztenak, eta sabai gabeko kirol instalazioak. Xedapen hori kontuan hartu da bai Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikusketan eta bai 8. sektorearen —Munto— plan partzialean. Horren froga da Ingurumen Ministerioaren Itsasertzen Zuzendaritza Nagusiak 2007ko irailaren 19an Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikusketaren Eraberritutako Testuari buruz emandako txostena, non, hitzez hitz, honakoa dioen: *(Esta Dirección General) no tiene objeciones que formular sobre el Texto Refundido de referencia; bestalde, Zuzendaritza Nagusi horrek, 2007ko ekainaren 28an, txostena eman zuen Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen 8. sektoreko —Munto— plan partzialari buruz eta txosten horretan honako hau dio: (Esta Dirección General) no tiene otras cuestiones que formular para la aprobación del Plan Parcial del Sector 8 MUNTO.*

Bai Ingurumen Ministerioko Itsasertzen Zuzendaritza Nagusiak emandako txostenak eta bai Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Eraberritutako Testua eta 8. sektoreko —Munto— plan partziala jasota daude dagozkion espedienteetan eta espediente horiek Udaleko zinegotzien eta interesatuen eskura daude.

Aurreko azalpenaren argitan, eta kontuan hartuta Ingurumen Ministerioko Itsasertzen Zuzendaritza Nagusia dela administrazio eskuduna udal planeamenduko tresnen legezotasuna interpretatzeko eta horri buruz txostena emateko, Itsasertzen 22/88 Legea betetzeari dagokionez, udal idazkariak ez du ezer eransteko aipatutako aldeko txosten horiei buruz —nahitaezkoak eta lotesleak direnak, bestalde— eta bere egiten ditu guztiz.

Urola Kostako Lurralde Plan Partzialean Muntoko antolamendua “aurreikusi gabe” dagoela eta, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, Euskal Herriko Lurralde Antolamenduaren maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen anparoan idatzi eta tramitatuak, behin betikoz onartuak izan ziren, otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bitartez, eta Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren otsailaren 12an.



Gidalerro horietan ezartzen dira Lurralde Plan Partzialak idazteko eremuak, eta horien artean dago Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Area Funtzionala, Orioko udalerria barnean hartzen duena.

Horrela, otsailaren 21eko 32/2006 Dekretuaren bidez, behin betiko onarpena eman zitzaion Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Area Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialari.

Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Area Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialak biltzen dituen proposamenak eraginkor egiten dira Antolamendu Arauak zehaztearekin eta, bereziki, “D. Exekuzio Programa” dokumentua eta “F. Antolamendu Planoak” dokumentua zehaztearekin. Antolamendu arauak lotesleak dira Planaren exekuziorako eta Orioko udalerria biltzen duen Area Funtzionalan (Urola Kosta) eragina duten edozein motatako planak idazteko.

Horrela, Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Area Funtzionalako Lurralde Plan Partziala behin betikoz onartzen duen Testuko “II.1. Modelo Territorial del Area Funcional” eta “II.5.1. Asentamientos Urbanos. Suelos residenciales” antolamendu planoetan honela definitzen da Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 8. sektoreko —Munto— lur azalera: *Área preferente de nuevo desarrollo residencial de alta densidad.*

Aurreko azalpenetik garbi ondorioztatzen da 8. sektoreko —Munto— plan partzialak proposatzen duen garapen urbanistikoa behar bezala planifikatuta dagoela dagokion lurralde antolamendu tresnan —kasu honetan, Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Area Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialean— eta begi bistakoa da, hortaz, alegazioetan honi buruz egindako baieztapenak ez datozela bat errealitatearekin.

Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren arau-haustea dela eta, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana behin betikoz onartzen duen abenduaren 21eko 262/2004 Dekretuaren 13.1 artikulua honako hau dio:

Se define como Gran Equipamiento Comercial, o Centro de Ocio y Servicios, o Plataforma Terciaria, a efectos de la presente normativa, todo aquella implantación urbanística de edificación terciaria que acumule de forma concentrada, una serie de equipamientos de servicios comerciales, de ocio y de hostelería (gran unidad alimentaria, galería comercial, grandes tiendas temáticas, complejo de multicines, centro de ocio, hoteles, restaurantes y cafeterías, estación de servicios, etc.) que, en su conjunto, y al margen de su posible compartimentación en empresas, establecimientos o actividades diferentes, alcance alguna de las siguientes magnitudes urbanísticas globales:

- Superficie neta de plataforma explanada, libre mas edificada: 15.000 m2.



- *Superficie de techo edificable: 5.000 m2.*

Ikusita 8. sektoreko —Munto— plan partzialaren 5. blokeko ordenantza partikularren 35. artikuluan ezarritakoa, 4. atalean honela dioena:

4. Aprovechamiento

Sup. Parcela 2.682m2

Sup. Construida comercial 862 m2

Sup. Construida máxima 3.630,40 m2

Sup. Construida comercial sótano 1.450 m2

Aipatutako plan partzalean aurreikusitako eraikuntza tertziarioen ezarpena ez da iristen goian jasotako 13.1 artikuluan ezarritako neurri urbanistiko minimoen erdira ere eta, beraz, ezarpen horiek ez lukete Saltoki Handi, Aisialdi eta Zerbitzu Gune edo Plataforma Tertziario kontsiderazioa izango Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aplikazioaren ondorioetarako. Beraz, 8. sektoreko —Munto— plan partzialak ez du urratzen Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, ez baitaio aplikatzen.

Saltoki Handia barnean hartzen duen sektore bat antolatzeko tresna egokia, plan partziala gabe, Barne Erreformako Plan Berezia dela eta, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak dioenaren argitan (ikusita aurreko paragrafoa), hori ez da aplikagarria 8. sektoreko —Munto— plan partzalean.

Ikusita Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 67.1 artikulua ezartzen duela plan partzialen xedea dela plan orokorrak edo dena delako sektorekatze planak lurzoru urbanizagarri modura zehaztutako sektore jakin bat xehe-xehe antolatzea.

Ikusita Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 8. sektorearen —Munto— fitxa urbanistikoko 5. atala (Planeamendu eta Jarduketa baldintzak), Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak 2007ko abenduaren 27ko bilkuran onartua, non, besteak beste, honakoa adierazten den: *se redactará en Plan Parcial, Estudio Hidráulico Pormenorizado, Proyecto de Urbanización, Estatutos, Bases de Concertación, Proyecto de Parcelación y Programa de Actuación Urbanística*, eta aurreko guztia ikusita, ondorioztatu daiteke 8. sektorea —Munto— garatzeko formulatu behar den planeamendu xeheturako tresna PLAN PARTZIALA dela.



Aurreko guztiaren argitan, hau izenpetzen duen udal teknikari juridikoak jakinarazten dio 8. sektorearen plan partziala behin betikoz onartu behar duen organoari guztiz atzera bota ditzakeela Cristina Salsamendi Ayestaranek, Arkupe Merkatari, Ostalari eta Profesionalen Elkartearen izenean, formulatu dituen alegazioak, zeren eta ez baita izan inolako lege aginduren arau-hausterik.

Kontuan hartuz Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorrak bigarren atalean dioena, antolamendu xehatuko planei buruz: *Prozedurari dagokionez, lege hau indarrean jartzean behin-behineko onespenerik ez duten antolamendu xehatuko planak eta antolamenduko gainerako tresnak, hain zuzen, lege honetan ezarritakoari lotuta onartuko dira behin betiko.*

Ikusita, era berean, lege horren 95. artikulua bigarren atalak dioena, plan partzialen tramitazioari buruz: *Udalak hasierako onspena edo ezespenera emango dio plan partzialari. Lehenengo kasuan, jendaurrean jarriko du, udalerrinari dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurralde horretan tirada gehien duen egunkarian edo egunkarietan hasierako onspena emateko erabakia argitaratuz. Plana 20 egunegoko da, gutxienez, jendaurrean, azken argitalpenaren egunetik aurrera.* 95. artikulua horren hirugarren atalak, berriz, honakoa dio: *Jendaurrean egondako epean aurkeztutako alegazioak ikusita, udalak behin-behineko edo behin betiko onartuko du plana, bidezko diren aldaketak egin ondoren. Aldaketak funtsezkoak badira, plan partzialaren testu bategin berri bat egingo da. Testu horri hasierako onspena emango zaio eta berriz ere jendaurrean jarriko da.*

Azaldutakoaren argitan, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 c) artikulua arabera, Orioko Udalbatzarrari dagokio 8. sektoreko —Munto— plan partziala behin betiko onartzea eta onarpenaren kontra aurkeztutako alegazioak ebatzea.

Plan partziala indarrean sartuko da behin betiko onarpena eta dagozkion ordenantza urbanistikoak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnean; betiere, alde aurretik, Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioak indarrean sartu badira.

Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du ez dela aipatu berak sartu zuen mozioa, gai honi buruz herri kontsulta bat egitea eskatuz. Bestalde, alkateari galdetzen dio, batetik, ea zergatik ez zuen udalbatzarra deitu Ibaien eta Erreken Lurraldearen Arloko Planari buruz atzo egindako bilera informatzailera, eta, bestetik, ea zergatik daukan horrenbesteko presa plan partzialaren behin betiko onarpeneko erabakia hartzeko, oraindik ez bada Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen Eraberritutako Testuaren araudi urbanistikoa.

Era berean, Iñaki Garcia zinegotziak honakoa adierazten du:



- Muntoko sektoreari dagokion azterketa hidraulikoari dagokionez, Ingurumen sailburuordeak adierazi zion beharrezkoa dela Uren Zuzendaritzak dagokion balorazioa egitea.
- Ez du aukerarik izan bere aholkulariei kontsultak egiteko Muntoko plan partzialaren tramitazioari buruz, ez dituelako oraindik jaso, idatziz, gaiari buruz eskatu zituen txosten juridikoak. Zertara dator horrenbesteko presa?

Ondorioz, alkateari eskatzen dio, batetik, bozketan jartzea herri kontsulta egitearen gaia eta, bestetik, plan partziala behin betikoz onartzearen kontra bozkatzea, guztien arteko adostasuna lortu behar delako auzitegietara jo aurretik. Adierazten du, baita ere, kasu honetan, ekimen pribatuari bakarrik erreparatu zaiola eta ez Orioko herriaren ongizateari.

Iñaki Iturain zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta honako hau adierazten du:

- Muntoko plan partzialak hiru oinarrizko jarduketa biltzen ditu: ikastetxe bat, saltoki handi bat eta etxebizitzetarako area bat.
- Ados dago ikastetxea eraikitzearekin.
- Saltoki handiaren kontra dago erabat, merkatariei arazoak besterik ekarriko ez dizkiolako eta, gainera, haren kokapenak mugikortasun arazo handiak sortuko dituelako herrian.
- Ez dago horrenbeste etxebizitza egitearen alde eta, beraz, Orion dagoen etxebizitza premiari buruzko azterketa sakona egitea eskatzen du, ez hipotekatzeko atzetik datozen belaunaldien etorkizuna.

Joseba Goiburu zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta honako hau adierazten du:

- Bat egiten du Iñaki Garcia zinegotziak esandakoarekin eta hark bezala eskatzen du herri kontsulta bat egitea eta plan partzialaren behin betiko onarpenaren gaia mahai gainean uztea.
- Plan partzialean oinarrizko hiru jarduketa bereizi behar dira: etxebizitzetako area, merkataritza gunea eta ikastetxea.
- Etxebizitzetako areari buruz, adierazten du 238 etxebizitza daudela proiektatuta eta gaur egun ez dela behar etxebizitza kopuru hori, ez baldin bada egin nahi lotarako herri bat. 2006ko Lurzoruaren Legeak aukera ematen du babes ofizialeko etxebizitzaren portzentajea %75erainokoa izateko eta, beraz, kontu hori sustatzaileekin negoziatu beharrekoa da. Ondorioz, Orion dagoen etxebizitza premiari buruzko azterketa sakona egitea eskatzen du.



- Merkataritza guneari dagokionez, bere talde politikoak zerbait ezkutatzen zaien irudipena dauka eta ez dakite zergatik. Iruditzen zaie honek guztiak zerikusia daukala Udalaren eta lurjabeen artean 2006ko ekainaren 16an sinatutako hitzarmenarekin, han 24 hilabeteko epea ezartzen baita kontu hau gauzatzeko eta beren buruari galdetzen diote hori ote den arrazoa. Bere alderdi politikoak ez dauka zalantzarik: plan partzialean saltoki handi bat proiektatzen da eta hori oso kaltegarria izango da herriarentzat.
- Ikastetxea da hemen funtsezko gaia. Inor ez dago Ikastolaren kontra eta garbi dago, plan partzialaren behin betiko onarpena atzeratzen bada, atzeratu egingo direla, baita ere, Ikastolaren asmoak Muntoko sektorean ikastetxe bat eraikitzeke; paradoxa da: Ikastola defendatzeko, plan partzial honi osotasunean eman behar diogu baietza. 1991n Ikastolak bere eskura zeukan 10.000 m²ko azalera Erriberetako sektorean, ikastetxe bat eraikitzeke; baina hura gabe geratu zen, haren partez kiroldegia eraiki zelako. Eskatzen du, beraz, inork ez esatea bere talde politikoa Ikastolaren kontra dagoela, Muntoko plan partziala bultzatzen ez duelako.
- Esandako guztiagatik, bere talde politikoak kontrako botoa emango dio Muntoko plan partzialaren behin betiko onarpenari; baina, bozketaren emaitza edozein izanda ere, eskatzen dute bihar bertatik negoziazio berriak egitea plan partzialaren promotore pribatuekin.

Segidan, Eugenio Cotado zinegotziak (EA) hartzen du hitza eta honako hau adierazten du:

- Muntoko plan partziala mahaiaren gainean egon da azken bost urteotan eta, orain dela gutxi arte, inork ez du ezer esan.
- Planaren jatorrian Udalaren premia dago, futbol/sofbol zelaia eraikitzeke lurra lortzeko.
- Herritarrek ere badaukate plan partzialari buruz iritzia emateko eskubidea eta batzuek adierazi dute dagoeneko Muntoko merkataritza gunearien alde daudela.
- Plan partzialaren behin betiko onarpena atzeratzen bada, zazpi urteko atzerapena izango da Ikastolarentzat.

Adierazpenen lehen txandari amaiera emateko, alkateak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du:

- Azken hiru egunetan informazio mingarriak irakurri ditu eta ez du onartzen inork esatea Orioko Udala gezurretan ari dela Muntoko plan partzialaren gaiari buruz.



- Erabat gezurra da esatea plan partzialean saltoki handi bat proiektatzen dela, zeren eta proiektatutako saltokiaren salmenta azalera 930 m²koa baita, Zarauzko Santa Marina kaleko saltokiaren antzekoa.
- Plan partzialak 238 etxebizitzako area bat ezartzen du, eta horietatik 48 dira babes publiko motaren bat dutenak.
- Proiektatutako ikastetxeak, eskola ekipamendua den aldetik, aukera emango dio Orioko Herri Ikastolari gaur egungo instalazioak handitzeko.
- Area tertziarioan aukera ematen da Eroskiko saltoki bat jartzeko, 935 m²ko salmenta azalera izango duena, eta horren helburua da gaur egun Oriotik kanpo erosten duten pertsona askok aurrerantzean Orion bertan egitea erosketak.
- Plan partzialak, bestalde, 4.104 m²ko azalera ezartzen du kirol ekipamendurako eta, aurrerantzean, Orioko Udalaren asmoa eta nahia da Munto inguruan kirol instalazio gehiago sustatzea.
- Orioko Udalak behartu egin zituen plan partzialaren promotoreak garajeko 38 plaza erostera, saltokiak erabil ditzan, azaleko aparkalekuak ez hipotekatzeko.
- Orioko bide publiko askotan gaur egun dagoen 15 minutuko aparkaldi mugatuak, batez ere, Orioko komertzioari egiten dio onura eta horretarako da.
- Plan partzialak 4.812 m² proiektatzen ditu berdegune publikoetan eta 750 m² haurrentzako jolasetan.
- Hori guztia da, batera, Muntoko plan partzialaren behin betiko onarpenarekin onartu edo atzera botako dena.
- Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioak ikusgai izan ziren Orioko herritarrentzat kultur etxean 2003an egindako aurkezpenean.
- Alkate gisa konpromiso batzuk hartu ditu eta berak bete egingo ditu. Hori dela eta, plan partziala behin betiko onartzearen aldeko botoa emango du.
- Muntoko plan partziala Orioko udal planeamenduko Arau Subsidiarioak ditu oinarrian, eta horien aurrerakina 2002. urtean onartu zela.

Ondoren, alkateak adierazten du parte hartzeko bigarren txanda bat irekitzen duela eta nahi duten zinegotziek bina minutu dutela beren azalpena egiteko. Iñaki Garcia zinegotziak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du:



- Muntoko sektorean lurzoruaren %16 Udalarena da eta Iñaki Garciak galdetzen du ea zergatik Orioko Udalak ez duen lur gehiago erosi, etxebizitza sozialak sustatzeko.
- Plan partzialak aparkatzeko arazo gehiago sortuko ditu.
- Plan partzialean 2.212 m²ko azalera proiektatzen da guztira merkataritzarako, bertan komertzio berriak instalatzeko: optika, liburu dendak...
- Beraz, berriro adierazten du herri kontsulta bat egin behar dela eta proposatzen du udalbatzarrak ez hartzea gaurko bilkuran inolako erabakirik plan partzialaren behin betiko onarpenari dagokionez.

Segidan, Iñaki Iturain zinegotziak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du:

- Arkupe elkarteak aspaldi ari da merkataritza gunearen kontrako borrokan.
- ORIOKO PLAZA udal aldezkaritan ez da inolako aipamenik egin Muntoko sektoreko merkataritza gunearen gaiari buruz.
- Hiru aldiz, gutxienez, eskatu du bilera deitzea Pilar Azurmendi udal arkitektoarekin (gaur egun, zerbitzu berezien egoera administratiboan), udalbatzarreko kideek informazio zehatza jaso dezaten Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen edukiei buruz, eta bere eskariak ez du orain arte erantzunik jaso.
- Arrazoi bakarra du plan partzialaren behin betiko onarpenaren kontrako botoa emateko eta hori merkataritza gunea da. Berriro eskatzen du, beraz, gaiari buruzko herri kontsulta egitea eta Orioko herriko etxebizitza premia errealari buruzko azterketa sakona egitea.

Segidan, Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du:

- Muntoko sektorean proiektatutako salmenta azalera 1.008 m²koa da eta, guztira, 1.450 m² daude, azalera komertzialekoak.
- Bere talde politikoak eskatzen du berriz negoziatzea planaren promotoreekin, babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko eta hasierako %20ko eskaintza hori handitzeko.
- Norbaitek lapurtu zion Ikastolari 10.000 m²ko azalera, Erriberak sektorean aurreikusita zegoena ikastetxe bat eraikitzeko.
- Percotur azterketak erakusten du Orioko bizilagunen %30,5 kanpora joaten direla erosketak egitera.



- Azken boladan arintasunez erabiltzen da “demagogia” hitza, bere ustez “herriaren nahia” esan nahi duena, eta garbi dago herriak nahi duena herri kontsulta egitea dela.

Azkenik, alkateak hartzen du hitza eta, parte hartzeen bigarren txanda ixteko, adierazten du Orioko Arau Subsidiarioen lehen onarpeneko momentuan indarrean zeuden arauak ez zutela markatzen portzentajerik lurren erreserba egiteko, babes publiko motaren bat duten etxebizitzak sustatzeko.

Ikusita aplikagarri diren lege agindu eta arauak, emandako txostenak eta egindako adierazpenak, Udalbatzarrak, gaia eztabaidatu ondoren, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2-d) —in fine— artikulua ezarritakoa betez, eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Hirigintza batzorde informatzaileak 2008ko otsailaren 28an emandako diktamena ikusita, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genoba (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV), Iturain (EB-B/Aralar) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

1.- ATZERA BOTATZEA OSORIK plan partzialaren lehen onarpenaren kontra Cristina Salsamendi Aiestaranek, Arkupe Orioko Merkataria, Ostalari eta Profesionalen elkartearen izenean aurkeztutako alegazioak, erabaki honen azalpenean jasota dauden arrazoiengatik. Arrazoi horiek udaleko teknikari juridikoak eta arkitektoak 2008ko otsailaren 11n eta 15ean, hurrenez hurren, egindako txostenetan jasota daude.

2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen 8. sektoreari —Munto— dagokion ekimen pribatuko plan partziala. Plan partzial hori ‘INMOBILIARIA DE ORIO TXOKO TXIKI, SL’ eta ‘DESARROLLO Y EDIFICACIONES MENDIBIL, SL’ entitate merkantilek sustatua da eta Luis Ulazia eta Luciano Pagaegi arkitektoek idatzi dute.

3.- Udal erabaki honen eragin juridikoa Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2007ko abenduaren 27an onartutako Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikusketaren Eraberritutako Testuaren barruko araudi orokorra argitaratu eta indarrean sartzearen menpe dago. Beraz, plan partziala arautzen duten ordenantzak ez dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko, indarrean jartzeko, aldez aurretik aipatutako araudi orokor hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu arte.

4.- BIDALTZEA aurreko erabakiak aipatzen duen plan partziala Gipuzkoako Foru Aldundira, planeamendu urbanistikoaren erregistro administratiboan jaso dezan, argitaratu aurretik.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ezohiko bilkura. 2008/03/04

Plana indarrean jar dadin eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 88. artikulua aurreikusitako ondorioak sor ditzan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da behin betiko onarpeneko erabakiaren eta arau urbanistikoen eduki osoa, berariaz adieraziz plan urbanistiko hori goian aipatutako erregistroan jasoa geratu dela.

Behin betiko onarpenaren erabakia argitaratuko da, baita ere, lurralde historikoko hedapen handieneko egunkari(et)an.

Jasota geratzen da udalbatzarraren erabaki hau bigarren bozketan hartu zela (goian adierazitako emaitzarekin), lehen bozketan berdinketa gertatu zelako. Aldeko botoa eman zuten Redondo, Ostolaza, Genoba, Del Hoyo eta Rodríguez udalbatzarkideek; kontrako botoa eman zuten Velasco, Goiburu, Zinkunegi, Iturain eta Garcia udalbatzarkideek; eta Cotado udalbatzarkideak abstentzio botoa eman zuen.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,